

NUKF-REN BATZORDE BETEARAZLEAREN  
ERABAKIA EUROPAKO NEXT  
GENERATION FUNTSEN INGURUAN



2020ko maiatzean, krisialditik ateratzeko asmoz, Europako Batzordeak proposamen ekonomiko bat egin zuen. Uztailean, Europako Kontseiluak akordioa lortu zuen COVID-19 pandemiaren osteko berreskuratzeko-plan bat aktibatzearekin.

Mekanismo horien artean dago NEXT GENERATION (NGEU) finantza-tresna berria, 750.000 milioi eurokoa. Tresna horrek barne hartzen duen berreskuratzeko- eta erresilientzia-mekanismoaren zatian, itzuli behar ez diren transferentziak daude, estatuaren arabera banatuko direnak.

Egoera horren aurrean, argi dago funts horiek tokiko proiektuak finantzatzeko aukera ere eman behar dutela, toki entitateen parte-hartze aktiboarekin.

Hori horrela izanik, NUKFek berak erabaki bat hartu zuen, eta, besteak beste, erabaki zuen toki entitateek lehentasunezko sarbidea izan behar dutela Europako funtsen finantzaketarako, beren proiektuak gauzatzeko behar besteko zenbatekoarekin. Era berean, NUKFek erabaki zuen Nafarroako Gobernuari eskatzea toki entitateekin hitz egiten hastea, haiek Europako funtsen harreraren parte-hartzea zehazteko, eta NUKFren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lan-batzorde bat eratzea.

Ondoren, 2020ko uztailaren 21ean Europako Kontseiluan onartutako Europako funtsetan Nafarroatik parte hartzeari eta parte hartzeko aukerari buruz Nafarroako Parlamentuan egindako osoko bilkura monografikoan onartutako ebazpenen artean, toki entitateek funtsen garapenean parte hartzeko beharra ezarri zen.

Horrela, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu zuen, Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioarekin bat etorrita, bultzatzen toki entitateentzako aholkularitza-zerbitzu egonkor, asmo handiko eta eraginkorra, Europako funts eta programen arlokoa, funts horiek eskuratzeko eta programetan parte hartzeko proiektuak aurkezten eta kudeatzen lagunduko duena, alde bietan egokien jotzen duten forman. Era berean, Nafarroako Gobernua premiatu zuen behar diren bideak ezar ditzan Foru Komunitateko toki-erakundeek Next Generation funtsetan parte hartzea bultzatzeko; horrela, bere ekintza-ahalmena eta funts horrek lortu nahi duen suspertzearen helburua uztar ditzake, erkidegoko ekonomia eta gizartea suspertzen lagunduz. Toki entitateen partaidetza Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioarekin batera zehaztu behar da, eta ekintza arloen identifikazioa jaso behar du, baita plan edo programen deskribapen zehatza eta Europako finantzaketa duten proiektuak gauzatea ere.

Azkenik, Nafarroako toki entitateekin gobernantza partekatua gauzatea ezartzen zuen ebazpen bat ere onartu zen, haiekin elkarrizketa arina eginez, beren ekonomien eraldaketa jasangarri, ekologiko eta digitalean bat egiten duten proiektuak egiteko, Nafarroako lurralde- eta gizarte-kohesioari eutsiz.

Funts horien kudeaketaren egoera, gaur egun, nahiz eta bileraren bat egin eta Nafarroako Gobernuak bere kabuz egindako dokumentu bat jaso, oso urrun dago zehaztapen eta akordio egoera batetik, non Nafarroako toki entitate guztiek beren ekimenak garatu ahal izan dituzten Nafarroako Gobernuak arbitratutako mekanismoen bidez. Ez dago zerbitzu egonkorrik toki entitateei Europako funtsei eta programei buruzko aholkularitza emateko eta haiei proiektuak aurkezten eta kudeatzen laguntzeko, eta ez dago gobernantza partekaturik proiektuak egiteko. Laburbilduz, Nafarroako toki entitateek ez dute irizpide argi eta zehatzik proiektuak egiteko, eta horietako batzuk beren ikuspegitik heltzen ari diote gai horri, baina ez dago ibilbide-orri uniforme eta eraginkorrik Nafarroako toki entitate guztientzat.

Foru Komunitateak oraindik ez duenez pisuzko gai hori zehaztu, erabaki-proposamen honek honakoak barne hartzen ditu: batetik, Next Generation funtsek finantzatuko lituzketen tokiko eskumeneko eremuetako jarduera-ildoak, zehazten diren zuzeneko edo zeharkako bideen bidez, eta, bestetik, xede horretarako egiten diren planetan sartzeko erabili behar diren prozedurak.

Hemendik aurrera, toki entitateen (NUKFren bidez) eta Foru Administrazioaren (eta departamentu bakoitzaren) arteko bilerak egin behar dira toki esparrurako aurkeztuko diren proiektuak zehazteko eta horiek gauzatzeko arau- eta prozedura-esparruak finkatzeko.

## 1. JARDUKETA LERROAK TOKI ADMINISTRAZIOAREN ESPARRUAN

Jarraian, Next Generation Europako tresnari atxiki ahal zaizkion inbertsio-lerroak aipatzen dira administrazioaren modernizazioaren; bere funtzionamenduaren eta herritarrei ematen dizkien zerbitzuen digitalizazioaren; eta gizarte- zein ingurumen-jasangarritasunaren esparruetan sartzen direlako.

- **Toki administrazioa eta bere funtzionamendua modernizatzea**

1. **Administrazio elektronikoa.** Administrazio elektronikoa ezartzeko prozesua, orokorrean, amaitzetik urrun dago oraindik Nafarroako Toki Administrazioan. Inbertsio esparru zabala dago hardware eta software erosteko bai eta barne antolakuntzarako eta trebakuntza eta laguntza teknikorako. Testuinguru horretan, bideragarria izan liteke toki entitate guztien beharrak jasoko lituzkeen proiektu bateratu bat aurkeztea Nafarroako Gobernuaren gidaritzapean. Atal honetan bereziki aipatzekoa da, halaber, administrazioen arteko jarduna bermatuko duen proiektu bat egiteko eta abiatzeko beharra.
2. **Banda zabaleko Internet.** Hertsiki toki eskumena ez bada ere, Nafarroako Banda Zabalaren II. Planak Nafarroako udalerrri guztietara banda zabala hedatzea asmo du eta lan horretan udalen inplikazioa aurreikusten du. Izan ere, teknologia hori eskuragarri egiteko udalek eginiko obrak barne hartu zituen, jada, Toki Ogasunen Funtzarekin finantzatutako Toki Inbertsioen azken Planak. Gainera, aipatu entitateek eremu zabala dute jorrazteko **wifi guneak** sortzeari dagokionean. Entitate horietako batzuk zenbait ekintza egin dituzte, dagoeneko, Europar Batasuneko funtsekin.
3. **IKT-ak udal zerbitzuetan ezartzea.** Eremu honetan jorratu daitekeena oso zabala da "hiri adimendunak" (Smart cities) deiturikoen alorrean (trafikoaren kudeaketa; argiteria; herritarrenganako harremanen kudeaketa; ur-horniketa, hiri-garraioa, hondakinak bezalako zerbitzuen digitalizazio adimenduna; zenbait zerbitzuen arreta telematikoa eta abar). Nafarroako Gobernuko zenbait departamentuk eta toki entitateek mota horretako ekintzak proposatzen ari dira eta baliteke proiekturen batean zehaztuak gelditzea.
4. **Leihatila bakarra sortzea ekonomiarekin lotutako administrazio kudeaketentzat.** Arlo honetan proposatzen dena zera da, sektore ekonomikoaren kudeaketak sinplifikatuko eta bizkortuko dituen proiektu bat egitea udal esparruan leihatila bakarra sortuta.

- **Toki Administrazioaren eraikinak, instalazioak eta ekipoak Europako modernizazioaren helburuetara eta karbono neutraltasunaren helburu energetikoetara egokitzea**

5. **Toki Administrazioaren jabegoko eraikinak zaharberritzea.** Udal egoitzetatik hasi eta kiroldegia, kultur etxeak, gizarte zerbitzuetako zentroak, ikastetxeak, osasun kontsultategiak eta adinekoen egoitzak barne hartzeraino; udal eraikinak zaharberritzeko aukerak anitzak bezain beharrezkoak dira klima aldaketarekin lotutako helburuak betetzeko. Ez da ahaztu behar eraikinetako asko oso antzinakoak direla eta hobekuntzarako tarte handia dutela.
6. **Energia berriztagarriak ekoizten dituzten instalazioak.** Zenbait toki entitatek instalazio txikiak abian dituzte, eguzki-energia ekoizten dituztenak batik bat. Energia-eredu berriak estatuan agertzen hasi diren autokontsumoaren arloko inbertsioak barne hartzen ditu.
7. **Iturri berriztaezinak dituzten energia ekoizteko ekipoak berritzea.** Esate baterako, gasolioko galdarak kendu eta berriztagarriak diren iturriak dituzten ekipoak jartzea, biomasa kasu. Biomasa erabiltzeak basoak, eta ingurune naturala orokorrean, hobe kudeatzen laguntzen du bai eta Nafarroako despopulazio arriskua duten zenbait eremuen ekonomia eta enplegua sendotzen ere.
8. **Eraikinak eta instalazioak zerbitzuen eskakizun berrietara egokitzea.** Udal zerbitzuak etengabe ari dira eguneratze prozesuan eta prestazio berriak eskaintzen edo daudenak modernizatzen. Batzuetan, horretarako, eraikinak edo instalazioak egokitu behar izaten dira. Gehienbat, kontuan hartuta eraikin eta instalazio asko duela hamarkadetako zerbitzu-ereduei jarraiki diseinatu zirela.

- **Uraren ziklo integrala**

9. **Horniketaren plan zuzentzailea amaitzea.** Helburua da gune guztiak kalitatez eta modu eraginkorrean urez hornitzen direla bermatzea. Azken hamarkadetan gai horretan aurrerapauso handiak eman diren arren, oraindik ere inbertsioak egiteko daude. Hala islatzen da Toki Inbertsioen Planetan, horien baliabideen zati handi bat helburu horretarako erabiltzen baita. Nafarroak abian du Hirian Erabiltzeko Uraren Ziklo Integralaren Nafarroako 2019-2030 Plan Zuzentzailea eta bertan horniketarekin loturiko inbertsioak aurreikusten dira.
10. **Ur hornidurako sare zaharkituak berritzea.** Oraindik ere oso zaharrak diren tokiko hornidurako sareak daude eta ur galera handiak eragiten dituzte. Aurreko puntuan aipatu planak zuzkidura ekonomiko handiko partida bat proposatzen du behe-hornidurako sareak hobetzeko. Horretarako, lehentasuna duten udalerrak aipatzen dira, hots, erregistratu gabeko ur kopuru handiena dutenak. Diru-partida horren baitan behe-hornidurako sareak hobetzea dago; euri-urak ere barne hartuta.
11. **Nafarroako ibaiak saneatzeko plan zuzentzailea amaitzea,** biztanlegune guztiei arazketa sistemekin zerbitzua emanez eta dagoeneko daudenak hobetuz. Toki entitateek arazketa biologikoa egiteko estazioak dituzte biztanlegune gehienentzat. Hala ere, saneamendu sistemak eraikitzeke dituzte 250 biztanleko zenbait biztanlegunetan. Horretaz gain, dauden instalazioetako batzuk hobetzea ere aurreikusten da.

**12. Kudeaketa eta kontrol sistema adimendunak abiatzea,** horniduraren alorren bai eta bestelakoetan ere; hala nola, hiri-eremuak ureztatzeko. Digitalizazioari esker hornidura eta saneamendu sistemak modu eraginkorragoan kudeatu daitezke.

- **Hiri-hondakin solidoak**

**13. Inbertsioak hiri-hondakin solidoak bildu eta tratatzeko eta, ekonomia zirkularren esparruan, berriro balioa emateko.** Europako zuzentzauek jomuga zorrotza ezartzen dute hiri-hondakin solidoen kudeaketari eta balioztapenari dagokionean. Nafarroako Toki entitateak ez dira zuzentzauek ezartzen dituzten epe eta portzentajeetara iritsi oraindik. Materia organikoaren bilketa eta tratamendua handitzeko ekintzak egitea ezinbestekoa da, beste elementuen birziklapena hobetu beharra dago (ontziak, papera...), tratamendurako instalazioak hobetu behar dira eta abar. Horrek guztiak azpiegiturarako eta ekipamendurako asmo handiko inbertsio plan bat eskatzen du bai eta sentiberatze programa sakon bat ere.

- **Argiteria**

**14. Inbertsioak toki entitate guztietan kontsumo txikia eta adimenduna duen argiteria eduki ahal izateko.** Toki entitateen energia kontsumoaren zati handi bat argiteria publikoari dagokio. Nafarroako toki entitateek hamarkadak daramatzate haien sistemak eraginkorragoak diren ereduera egokitzen. Hala ere, oraindik egiteke daude gai horren inguruko egitasmoak. Helburua ez da sistema eraginkorragoak jartzea soilik, sistema adimendunak ere jartzea baizik, ingurunearen beharretara unean-unean egokitutako hornidura eman ahal izateko.

- **Mugikortasuna**

**15. Hiri-garraio garbia eta eraginkorra.** Nafarroako hiri-garraioa ibilgailu kutsatzaileetan eta petrolioaren eratorriak kontsumitzen dituztenetan oinarritzen da oraindik. Era berean, hiri-garraioaren zirkuituek, batzuetan, ez dituzte ibilgailu horiek oso arinak egiten eta ez dute horien joan-etorria lehenesten. Azkenik, sarearen digitalizazio handiago batekin eta adimen artifiziala aplikatuz hiri-garraioaren eraginkortasuna hobetuko litzateke.

**16. Inbertsioak oinezkoentzat eremuak egiteko eta bizikletentzako bideen sareak sortzeko.** Nahiko tamaina handiko udalerriek hobetzeko tarte handia dute arlo honetan. Azken urteotan, bidegorrien sare garrantzitsu batzuk sortu dira eta lehen autoentzat ziren eremuak oinezkoentzat bihurtu dira. Baina orain arte egindako jarduerak ez dira lortu nahi diren jasangarritasuneko helburuetara iristen oraindik.

**17. Ibilgailu elektrikoentzako karga-guneak.** Europar Batasunak milioi 1 karga-gune jartzeko helburua ezarri du baina Nafarroan ia ez dago halako gunerik. Udalek ekimen pribatuarekin batera helburu hori lortzen lagun dezakete. Orain arte, gai horren inguruko esperientziak gutxi batzuk baino ez dira.

**18. Landa-ingurunean garraio publikoaren sareak sustatzea.** Komunikazioak funtsezkoak dira tokiko komunitateei eusteko. Bertako herritarren joan-etorriak bermatu behar dira. Horri dagokionean, garrantzi berezia du landa-eremuetako ikasleen garraioa bermatzeak, unibertsitate aurreko epe guztian zehar, gutxienez.

- **Gizarte zerbitzuak**

**19. Gizarte zerbitzuak behar berrietara egokitzea.** Gizarteak egun, behar berriak ditu gizarte zerbitzuen alorrean eta dagoeneko zeuden beste behar batzuk osatzeko premia du, bai prestazioen esparruan bai eta azpiegiturei dagokienean ere. Behar berri horien adibide dira, besteak beste, jantoki sozialak, larrialdiko laguntzen programak etab.

**20. Azpiegiturak hobetzea eta behar berrietara egokitzea.** Zenbait udalerritan gizarte zerbitzuetako egoitzak ingurumen jasangarritasuneko neurriei egokitu eta moldatu behar dira bai eta digitalizatu ere. Sarritan, duela hamarkada asko sortutako espazioak dira, eta gaur egungoak ez bezalako eskakizun eta beharrak zituzten orduan.

**21. Arreta zerbitzuak digitalizatzea.** Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berrietan (IKTBetan) oinarritutako arreta zerbitzu berrietarantz aurrera egin beharra dago erabiltzaileei arreta eskaintzeko zerbitzuetan. Digitalizazioak aukera berriak eskaintzen ditu, zerbitzuak zabaltzen ditu eta daudenak eraginkorragoak bihurtzen. Teknologia horietan oinarritutako etxer etxeko arretak hobekuntza nabarmenak izan ditzake. Toki entitateek arreta zerbitzu eta eredu berrietara zuzendutako jarduerak egin behar dituzte arlo honetan, Eskubide Sozialetako Departamentuarekin elkarlanean.

**22. Epe luzeko zainketetarako ekipamendu publiko berriak abiatzea eta daudenak egokitzea.** Dauden zentroak gizatiartuagoak eta pertsonalizatuagoak diren arreta eredu berrietara egokitu behar dira. Duela gutxi Nafarroako Gobernuak mendekotasuna duten pertsonentzako egoitza zerbitzuak baimentzeari buruzko foru dekretua onetsi zuen eta, horri jarraiki, inbertsio berriak eta kasu batzuetan handiak behar dira arlo horretan.

**23. Udalerriko zerbitzuak, jarduerak eta azpiegiturak ezgaitasuna duten pertsonen egokitzea.** Bitarteko digitalen eskuragarritasunetik hasi eta espazio fisikoak zein udal zerbitzuak barne hartzeraino (arreta zerbitzuak, kultur-, kirol-, gizarte-zerbitzuak...). Horiek guztiak ezgaitasuna duten pertsonen egokitzeko eta eskaini ahal izateko proiektuak egitea beharrezkoa da haien eskubideak bermatzeko.

- **Hirigintza eta etxebizitza**

**24. Hirigintza ereduak jasangarritasun- eta erresilientzia-beharretara egokitzea.** Hiri jasangarri eta erresilientziadunetara bideratutako hirigintza-ereduak sortu behar dira. Oinezkoentzako eremuak, bizikletentzako bideak eta klima aldaketari egokitzea oinarri izanen dutenak. Nafarroako toki entitate batzuk "Egoki" eta "Egoki 2" izeneko bi proiektu pilotu egin dituzte Europako finantzazioarekin. Proiektu horiek ekarpen garrantzitsuak egin dituzte alor horretan.

- 25. Ikastetxeak digitalizatzea.** Hezkuntzak teknologia digitalak dituzten ikastetxeak behar ditu eten digitala ere murrizteko.
- 26. Parke jasangarriak sortzea;** ur eta energia kontsumo txikiekin. Nafarroan xerolorezaintzako adibide batzuk daude. Arlo honi dagokionez, hainbat inbertsioen bidez egin daitezkeen hobekuntzak asko dira.
- 27. Etxebizitzak zaharberritzea** bizi-kalitatea eta energia kontsumoaren eraginkortasuna handitzera bideratua. Toki entitate batzuk etxebizitza-parke propioak dituzte. Beste batzuek, inbertsioak sustatzen dituzten araudiak egin dituzte. Nasuvinsarekin batera egindako egitasmoak daude ere bai, udal eraikinak birgaitzeko eta ondoren alokairuan jartzeko. Alor honetan ere banakako proiektuak egin daitezke bai eta proiektu bateratuak Foru Administrazioarekin.
- 28. Hirigune zaharrak berreskuratzea** diziplina anitzeko neurriak oinarritzat harturik eta neurri horiek honako hauek barne hartzen dituztela: zaharberritze arkitektonikoa, espazioak irekitzea, horietan jarduera ekonomikoa sustatzea, ekipamenduak sortzea. Herri batzuetako hirigune zaharrek nolabaiteko narriadura erakusten dute eraikuntzan, azpiegituretan eta gizartean, eta egoera horiek lehengoratu egin behar dira.
- **Hezkuntza**

**29. Ikastetxeak zaharberritzea** energia eraginkortasun handiagoa eta irisgarritasun unibertsala helburu izanik. Lehen hezkuntzako ikastetxe publikoak udal jabegokoak dira eta, sarritan, nolabaiteko antzinatasuna dute, irisgarritasunari edo energia-eraginkortasunari eragiten diena.
  - **Osasuna**

**30. Osasun kontsultategiak zaharberritzea.** Hauek ere udal jabegokoak dira eta irisgarritasuna egokitu behar dute bai eta espazioak eta energia eraginkortasuna hobetu.
  - **Merkataritza**

**31. Udal merkatuak egokitzea.** Toki entitate batzuk merkatuen eraikinak dituzte. Merkataritza eredu hau sustatzeak hurbileko kontsumoa bultzatzen du eta inguruko ekonomiak sendotzen ditu. Horregatik, merkatuak ahalik eta gehien egokitu behar dira kontsumitzaileen eskakizun berriei. Espazio, ekipamendu eta energia eraginkortasun hobeak posible dira.

**32. IKTB tresnak hurbileko merkaturako.** Tokiko saltokietarako plataforma digitalen laguntzarekin edo garapenarekin. Gaur egun, Interneten oinarritutako esperientzia batzuk garatzen hasi dira. Esperientzia horiek tokiko saltokiak herritarrengana hurbiltzen dituzte, eta lehiakortasun handiagoa ematen diete on line aukeretan gero eta gehiago oinarritzen den esparru batean, hots, merkataritza. Udalek mota horretako jarduerak sustatu ditzakete ekimen pribatuarekin elkarlanean.

- **Tokiko ekonomia sustatzea**

- 33. Jarduera ekonomikorako industrialdeak sortzea eta egokitzea.** Urteak dira Foru Komunitatean laguntza-lerro bat garatzen ari dela jarduera ekonomikorako industrialdeak abian jartzeko. Industrialde horiek, nagusiki, tokikoak eta txikiak dira, eta enpresa txiki eta ertainak ezartzea ahalbidetzen dute. Laguntza-programa horrekin jarraitu behar da eta dauden azpiegiturak enpresen behar berrietara egokitu behar dira. Aipatu industrialde horiek askotan funtsezkoak dira tokiko ekonomientzat.
- 34. Coworking guneak eta habia-instalazioak.** Udalek tokiko enpresen sorrera sustatzen duten mota horretako ekimenak bultzatzen dituzte. Izan ere, Nafarroako udalerrri batzuetan, dagoeneko, halako ekimenak abiatu dira eta apustu irmoa dira enpresak sortzeko eta horiek herrian gelditzeko. Bi ekimen horiek (coworking-a eta habia-instalazioak) Europako funtsetan sar litezkeen inbertsioak behar dituzte.
- 35. Tokiko enplegu planak.** Enplegu planak sendotu behar dira. Gainera, tokian tokiko lurraldearen beharrak kontuan hartuko dituzten tokiko planak ezarri behar dira.
- 36. Garapen ekonomikorako partzuergoak eta tokiko ekintza taldeak sendotzea.** Entitate horiek zeregin garrantzitsua dute lurraldeen ekonomia bultzatzeari dagokionean eta haien jarduera eta egiturak indartu behar dituzte garapen ekonomikorako funtsezko elementu baitira.
- 37. 0 kilometroko er esketa-proiektuak.** Jasangarritasunerako eta lurraldeen garapen ekonomikorako eredu berriak produktuak eta zerbitzuak kontsumitzen diren lurralde-eremuan erostearen alde egiten dute. 0 kilometroko kontsumoa bestelako eremuetan ere sendotu daiteke; hala nola, jantoki sozialak, eskolakoak eta bestelakoak hornituz.

- **Eten digitala**

- 38. Toki esparruan IKT-en zentro eta aretoak sortzea.** Gizartea, orokorrean, teknologia horiek erabiltzeko ezagutzak bereganatzen ari den arren, bereziki Interneten oinarritutakoak, oraindik ere eten digital handia dago batik bat herritarren adinarekin lotuta, eta eten hori ikasteko guneetan artatu behar da. Mota horretako zentroak eta, horrekin batera, trebakuntza ekintzak sortzeak pertsoneri teknologia berriak hurbiltzen dizkie, eta horri eskerrak ez dira digitalizazioan atzean gelditzen.

- **Bioaniztasuna kudeatzea**

- 39. Baso-masak kudeatzea eta ustiatzea.** Ustiaketa jasangarriaren zigiluaren (PECF edo FSC) esleipenean aurrera egin behar da. Bestalde, inbertsioak behar dira basoak mantentzeko; Nafarroan baso horietako gehienak udal jabegokoak dira.
- 40. Hondatutako espazioak lehengoratzeko.** Hondatuta dauden zenbait espazio lehengoratzeko edo hondatze bidean daudenak hobetzeko inbertsioak behar dira. Azken batean, inbertsioak behar dira herrietako ingurune naturala zaindu eta hobetzeko.



- **Turismoa**

- **41. Azpiegituretarako eta turismo-produktuetarako tokiko inbertsioei laguntza ematea.**

- Toki entitateak dira Nafarroako turismo eskaintzaren sustatzaile nagusiak. Izan ere, azken hamarkadetan, eskaintza horren bultzatzaile izan dira, hein handi batean. Gainera, inbertsio garrantzitsuak egin dituzte arlo horretan. Nafarroako turismoak landa izaera du bereziki (Sanferminak salbu) eta familia-ekimena eta enpresa txikien ekimena du oinarrian. Ezaugarri horiek kontuan hartuta, udalek azpiegituretan, produktuan eta sustapenean inbertitzen jarraitu behar dute.

- **Nekazaritza jasangarria**

- **42.** Herritarrek ustiatutako herri-lurren azalera handien jabe dira udalak. Herri-lur horietako batzuk ureztatze sistema zaharkituak dituzte eta horien eraginkortasuna hobetu beharko litzateke.

- **Bestelako ekimenak**

- **43.** Parte hartzeko prozedura bat abiatu behar da toki entitateek Next Generation Planaren diseinuan ekimenak edo jarduketa ildo berriak proposa ditzaten, bai NUKFren bidez edo Lurralde Kohesiorako Departamentuaren bidez, ekimen guztiek bat egiteko bide bakarra egon dadin.

## 2. AIPATU ARLOEKIN LOTUTAKO PROIEKTUAK EGIN ETA AURKEZTEKO PROZEDURA. FORU ETA TOKI ADMINISTRAZIOEN ELKARLANAREN BEHARRA

Bistan denez, aurreko atalean aipatu inbertsio-arloak proiektu zehatzetan gauzatu behar dira eta proiektu horiek arau-esparru eta prozedura zehatza izan behar dute finantzazioa eskuratu ahal izateko.

Bestalde, toki entitateek ez dakite foru gobernua eta estatukoak honen guztiaren inguruko parte-hartze prozesua nola bideratuko duten. Foru exekutiboak toki entitateen inbertsioak barne hartzen dituzten proiektuak aurkeztea, dagozkion formaltasun juridiko eta prozedurazkoekin; edo autonomia erkidegoak arlo horietarako funtsak jaso ondoren toki entitateen artean dirulaguntza deialdiak egitea; edota toki entitateek zuzenean “estatuko leihatiletan” inbertsio proposamenak aurkeztea; aukerak oso ezberdinak dira baina, batez ere, zehaztu gabe daude.

Edonola ere, afera erabakigarria da, eta hala da ere bai Nafarroako Gobernuak aurkeztuko dituen proiektuak zehatzago ezagutzea eta tokiko ekimenak proiektu horietan nola txertatu daitezkeen jakitea.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da NUKFren eta Nafarroako Gobernu departamentuen arteko topaketak egitea proiektuak zehazten aurrera egiteko eta erkidegoko toki entitateak, oro har, Europako funtsen eta, bereziki, Next Generation programari esleitutako guztiz partaide izateko borondatea gauzatzeko.

Zehaztugabetasun horren aurrean, eta funts horiek eskuratzeko epeak murrizten ari direla kontuan hartuta, NUKFek honako hau erabaki du:

1. Aurreko ataletan adierazitako jarduketa esparruak eta prozedurak onestea Nafarroako toki entitateek Europako Next Generation Funtsetan parte har dezaten.
- 2.- Nafarroako Gobernuari eskatzea toki entitateek Europako funtsetan zein bideetatik parte har dezaketzen zehaz dezan, aurretik aipatutako jarduketa ildoak eta prozedurak kontuan harturik.
- 3.- Nafarroako Gobernuari eskatzea ahalik eta lasterren abian jar dezala zerbitzu egonkor, anbizio handiko eta eraginkor bat, toki entitateei Europako funts eta programen arloan aholkuak emateko eta haiei proiektuak aurkeztu eta kudeatzen laguntzeko.
- 4.- Nafarroako Gobernuari eskatzea Next Generation funtsetan ezarritako parametroen barruan sar daitezkeen proiektuak garatzeko irizpide argiak Nafarroako toki entitateei helaraz diezazkiela, toki entitateak eskura ditzaketzen proiektuen tipologia azaltzen duen dokumentu bat eginez.
- 5.- Nafarroako Gobernuari eskatzea "leihatila bakarra" gaitu dezala, Nafarroako toki entitateek beren proiektuak bideratu eta aurkeztu ahal izan ditzaten.